



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2012/13 denboraldia

29ZK. DUN ZIRKULARRA

HIRUGARREN MAILARAKO IGOERA-ALDIA

Hirugarren mailako IV. taldean maila-igoerak direla-eta sor daitezkeen hutsuneak betetze aldera, eta Batzorde Nagusian hitzarturiko txapelketa-oinarriari jarraiki, goian aipaturiko igoera-aldia antolatu da, ondoko arauak oinarri harturik:

1. Parte-hartzaileak

Lurralde bakoitzeko Laugarren mailan bigarren postuan sailkatutako taldeak:

- S.D. SALVATIERRA (Araba)
- RETUERTO S.S.D. (Bizkaia)
- C.D. HERNANI (Gipuzkoa)

2. Txapelketa-sistema

Igoera aldia itzuli bakarreko Liga-sistemaren bitartez jokatu da.

3. Datak

Partidak ondoko egunetan jokatu dira: ekainaren 2an, 9an eta 16an.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

4. Partiden Jardunaldiak eta Ordutegiak

Partiden jardunaldi eta ordutegi ofizialak honako gutunean zehaztu dira. Hala ere, partida antolatzen duen klubak larunbat arratsaldera aurreratu dezake, 15.30tik aurrera jokatuz gero, aurkariari baimenik eskatu gabe. Hori alde batera utzirik, jardunaldia aldatu nahi duen klubak Euskadiko Federakundeari zazpi egun lehenago jakinarazi behar dio, betiere aurkariari baimena eskaturik. Aurkariak ere era berean adierazi behar du baimen hori.

Partidaren ordutegia nahiz jokalekua Euskadiko Futbol Federakundeari jakinarazi behar zaizkio (Fax 94-4732221, webmaster@eff-fvf.org), norgehiagoka jokatu baino zazpi egun lehenago. Aurreko guztia talde aurkariari ere jakinarazi behar zaio.

5. Jokalarien aldaketak

Partidetan, gehienez, bost aldaketa egin ahalko dira.

6. Berdinketak

EFF-k indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 101.4. Artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zeinahi dela ere, bost jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetako batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontuan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

7. Epaileak

Partidak zuzentzeko Preferente mailako epaileak aukeratuko dira. Lehian ariko diren taldeena ez den beste Lurralde Federakunde batekoak izango dira, eta gastuak partida antolatzen duen taldearen pentzudakoak izango dira.

8. Diziiplina Batzordea

Aldi honetan parte hartzen duten taldeei zein horietako jokalaria, zuzendari nahiz buruei dagozkien diziiplina arloko gorabeheretan ez da etenik egingo aldia hasterakoan, ondokoei dagokienez: zigorrak betetzea, arau-hausteetan berriro jaustea, txartelak metatzea nahiz bestelako ondorioak.


Partidak bukatutakoan, epailearen aktak Euskadiko Futbol Federakundera bidali behar dira, Diziiplina Batzordeak erabakia hartu eta jakinaraz dezan, hala behar izanez gero.

Aurrekoa jakinarazi zaie parte hartuko duten klubei, Lurralde Federakundeei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, jakinaren gainean egon daitezen, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbo, 2013ko maiatzaren 27a

JON ANDER GAMBOA AGUIRRE

Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

FASE DE ASCENSO A TERCERA DIVISION

HIRUGARREN MAILARAKO IGOERA-ALDIA

EGUTEGIA / CALENDARIO

EKAINAREN 2AN / 2 DE JUNIO

RETUERTO S.S.D. – C.D. HERNANI

S.D. SALVATIERRA (ATSEDENA)
(DESCANSA)

EKAINAREN 9AN / 9 DE JUNIO

S.D. SALVATIERRA – RETUERTO S.S.D.

C.D. HERNANI (ATSEDENA)
(DESCANSA)

EKAINAREN 16AN / 16 DE JUNIO

C.D. HERNANI – S.D. SALVATIERRA

RETUERTO S.S.D. (ATSEDENA)
(DESCANSA)

-0-0-0-0-0-0-0-0-0-